

LEZOKO UDALA

2025 URTERAKO DIRULAGUNTZA IREKIEN DEIALDIA

OINARRI OROKORRAK

ZIOEN AZALPENA

Lezoko Udalak euskararen, gizarte zerbitzuen eta kirolaren arloan dirulaguntzak ematea jasotzen du 2025ko udal aurrekontuetan. Laguntza horien bidez, udal interesekotzat jotzen diren alor eta diziplinetan hainbat elkartek, entitatek eta norbanakoek egiten dituzten askotariko ekintzak edo jarduerak babestu nahi dira.

Eman beharreko dirulaguntzen bidez, udalak zenbait alorretan esku hartzen lagundu nahi die elkarte, entitate eta norbanako horiei.

Horregatik guztiagatik, Lezoko Udalak, bere aurrekontu baliabideen esparruan, lehia askeko deialdi irekia egiten du, arestian aipatu arloetan proiektu eta hainbat jardueretarako dirulaguntzak emateko.

Deialdi honek hainbat dirulaguntza programa jasotzen ditu agiri bakar batean, dirulaguntzak hartuko dituzten elkarte, entitate eta norbanakoei araudi erreferentzia bakarra emateko eta, aldi berean, espedienteak izapidetzean egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzeko. 9 dirulaguntza programa jasotzen dira oinarri espezifikoaren atalean.

Deialdi honetan hauek ezartzen dira:

1. Oinarri orokorrak, dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan ezarritakoaren (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2018-11-06, 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2024-02-28) eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta haren araudia 887/2006 errege dekretuan ezarritakoaren arabera. Oinarri horietan zehazten dira, hain zuzen, deialdi guztienak diren xedapen orokorrak, eskabidea egiteko jarraitu beharreko prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak, aurkezteko epeak, eman beharreko zenbatekoa, dirulaguntza zertarako den justifikatzea, dirulaguntzak ordaintzea eta abar.
2. Oinarri espezifikoak, euskara, gizarte zerbitzuen eta kirol sailak bere eskumeneko alorrean ezartzen dituztenak dira; bertan, besteak beste, laguntza programa bakoitzaren xedea eta berezitasunak, dirulaguntza baloratzeko irizpideak eta aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria zehazten dira.

I. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Oinarri hauek 2025 urterako norgehiagoka erregimenean dirulaguntzak emateko prozedura orokorra arautzen dute; horren kudeaketa Lezoko Udalari dagokio.

2. artikulua. Onarpena eta argitalpena.

Deialdi hau 2025-01-28ko Tokiko Gobernu Batzordean onartu da.

Oinarriak oso-osorik Lezoko Udalaren egoitza elektronikoan eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren webgunean argitaratuko dira. Deialdiaren laburpena berriz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hau ere, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez bidalia.

3. artikulua. Araubide juridikoa.

Dirulaguntza hauek emateko eta udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, oinarri hauek eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.

Oinarri espezifikoek bestelako erregulazio bat berariaz ezartzen ez badute behintzat, oinarri orokor hauetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie udalak onartutako dirulaguntza programa guztiei.

Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian honako hauek aplikatuko dira: Lezoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua eta gai honi aplikatu dakizkikeen indarreko arauak.

4. artikulua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testuategina.

Halaber, kontuan izango da 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuateginak jasotzen duena. Honen arabera, 3. artikuluan eta 17., 19.4. eta 23. artikuluetan jasotzen diren printzipio orokorrak eta mandatuak betetzeko eskatuko zaie EAEko botere publikoren batekin kontratuak edo lankidetzak hitzarmenak sinatzen dituzten entitate pribatuei, EAEko botere publikoen partaidetza dutenei edo botere publikoen laguntzen edo dirulaguntzen onuradun direnei, haien arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian. Aipatu dekretuko 3. artikuluan honako printzipioak jasotzen dira, besteak beste:

- Tratu berdintasuna
- Aukera berdintasuna
- Ikuspegi intersektzionala txertatzea
- Ekintza positiboa

- Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea
- Emakumeen ahalduntzea
- Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea
- Ordezkaritza orekatua

Horrez gain, aipatu dekretuko 17. eta 23. artikuluetan, besteen artean, ondorengo mandatu hauek ere jasotzen dira:

- Azterlan, ikerketa, estatistika edo datu bilketetan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzeari.
- Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea irudi eta hizkera mota guztietan. Lagungarri gisa Udaleko web orrian eskuragarri dagoen Hizkuntza barneratzaileari buruzko gida ikus daiteke (<https://lezo.eus/eu/berdintasuna/hizkuntza-barneratzailea-bultzatzeko-gida>).
- Dirulaguntzen onuradunek genero-ikuspegia txertatu behar dute euren jardunean eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko neurriak hartuko dituzte.

Lezoko Udalak ez die laguntzarik edo dirulaguntzarik emango sexuan oinarrituta edo diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jardueri, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

5. artikulua. Hizkuntz Betebeharrak.

EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokion arlo guztietan, bai ahoz, bai idatziz ondorengo arauetan jasotzen dena beteko da:

1. EAEko Estatutuaren 6. Artikulua.
2. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea.
3. Otsailaren 22ko, 19/2024 Dekretuaren 13.artikulua, b) atala.
4. Lezoko Udalak 2018ko azaroaren 29ko osoko bilkuran onartutako VI. plangintzaldi (2018-2022) barruko hizkuntz irizpideak

Hizkuntz Irizpideetan jasotzen den bezala, besteen artean ondorengo hauek bete beharrekoak direla gogoratu behar da:

- Dirulaguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: Idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izateko saiakera egitea (kontuan izanda, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortzen diela).

- Dirulaguntzaren xede den ekintz(et)an euskara erabiliko dela bermatzea. Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatuko balitz eta hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespeta daitezen.
- Diruz lagundutako ekintzetan argitaratzen diren eskuorriak, kartelak, iragarkiak, oharra eta gainerakoak, ahozkoak zein idatzizkoak gutxienez euskaraz egotea eta, kasu horretan, euskarari lehentasuna ematea.
- Jardueraren hedapen lana eta jarduera bera euskaraz gauzatzen dituzten elkarteak diruz sarituko ditu Lezoko Udalak.
- Haur eta gazteentzat zuzendutako jarduerak antolatzeko dirulaguntza eskatzen denean, aipatu jarduerak euskaraz izan beharko dute. Jarduera horietan euskara ulertzen ez duen hartzailerik balegobideak jarriko zaizkio jardueraren baitan esandakoak uler ditzan.
- Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete ezean, ez da dirulaguntzarik emango.

6. artikulua. Bestelako laguntzak.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik dirulaguntza jasotzen duten ekintzak.

II. ONURADUNAK

7. artikulua. Onuradunak.

Dirulaguntza hauen onuradunak honako hauek izan daitezke:

Lezon ekimenak egiten dituzten Lezoko pertsona fisiko zein juridikoak betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute.

Halaber, Lezokoak ez diren entitateek ere, eska dezakete dirulaguntza, baldin eta Lezon ekimenen bat burutzen badute, Lezoko herritarrak artatzen badituzte edota udalarentzat interesgarriak direla iritzitako jarduerak baldin badira.

Era berean, ezin izango dute onuradun baldintzarik eskuratu beren jarduerarekin izaera sozial edo pertsonaleko beste edozein diskriminaziorik sustatzen duten elkarteak.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- a. Udalarekin zorretan ez egotea.
- b. Pertsona fisikoen kasuan Lezon erroldatuta egotea dirulaguntza eskatzean, eta hala egon izana gutxienez azken urtean edo bi urte metatuak izateak azken 15 urtetan.
- c. Zerga-betebeharretan egunean egotea.
- d. Gizarte-Segurantzarekin zorretan ez egotea.
- e. Izaera juridikoa duten elkarteek dagokien elkarte erregistroan inskribatuak egon

beharko dute.

- f. Lezoko udalerrian beren egoitza ez duten elkarten kasuan izena emanda egotea dagokien Elkartea Erregistroan.
- g. Deialdi bakoitzerako eranskinean jasotako oinarri espezifikoetan jasotako baldintzak.

III. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA DOKUMENTAZIOA

8. artikulua. Lekua eta dokumentazioa.

Eskariak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki (eskaera entitate juridikoaren lehendakariak edo jabe ez den beste pertsona batek egiten badu, sinatutako ordezkariak agiria aurkeztu beharko du, aurrez aurkeztua ez bada):

- Presentzialki Udaleko Erregistro Nagusian (Gurutze Santuaren plaza, 1).
- Telematikoki, udalaren zerbitzu telematikoko dirulaguntzak atalean (www.lezo.eus).
- Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Lezoko Udalak, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez edo informazio hori lortzeko gaitutako beste bitarteko baten bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Lezoko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAEren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Eskatzailearen edo ordezkariaren nortasun agiria edo agiri baliokidea.
- Foru Ogasunarekin zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Gizarte Segurantzarekin zorretan ez dagoenaren ziurtagiria.

Hala ere, egiaztatze honi uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Lezoko Udalak, ofizioz, egiaztatuko ditu ondorengoak:

- Lezoko Udalarekin egunean egotearen ziurtagiria.
- Eskatera-orrian adierazitako kontu korrontea pertsona juridikoarena dela ziurtatzea.
- Entitateen dagokion Erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztatzea.
- Entitatearen estatutuak.
- Entitatearen zuzendaritza osaketaren egiaztatzea.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Dirulaguntza eskatera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza eskatera-orri normalizatua. Dirulaguntza deialdiaren arabera eranskin bakoitzean jasotzen dena.
- Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK) (Eskatera pertsona juridiko batek egin badu).
- Eskatera orrian eskatzaileak derrigorrez bere kontu korrante zenbakia adieraziko du. Kontu horretan egingo da dirulaguntzaren ordainketa.
- Dirulaguntza deialdiaren arabera eranskin bakoitzean adierazten den dokumentazio gehigarria.
- Zinpeko aitorpena eskaria orrian, aurkeztutako datu guztiak benetakoak direla ziurtatzen duena.
- Zinpeko aitorpena eskaria orrian DLLOko 25. eta 26. artikuluetan ezarritako baldintzen arabera, dirulaguntzen itzuleragatik zorduna ez izatea ziurtatzen duena. (ED 887/2006-EAO 176-uztailaren 25ekoa).
- Zinpeko aitorpena eskaria orrian 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena, jasotakoaren kontrako jarduerak antolatu ez, jarrerak izan ez edo kontrako epai ez izatea ziurtatzen duena.

Eskatzaile fisiko edo juridiko batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Lezoko udalaren esku daudela eta udalak berak ere hori hala dela badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Dirulaguntza banatzeko oinarriak Lezoko web gunean (<https://www.lezo.eus>) eskuratu ahal izango dira.

IV. EPEAK

9. artikulua. Eskatera aurkezteko epea.

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen direnak izango dira.

10. artikulua. Dokumentazio osagarria.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, jakinarazi eta hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluaaren arabera, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.

V. PROZEDURA

11. artikulua. Ebazteko prozedura.

Honakoa izango da ebazteko prozedura:

- a) Dagokion arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egingo du.
- b) Jarraian, Tokiko Gobernu Batzordearen akordio edo alkate dekretu bidez onartuko da.
- c) Azkenik, Tokiko Gobernu Batzorde akordio edo alkate dekretu bidez emango da dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena.

12. artikulua. Ebazteko epea.

Eskaerak erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilekoa izango da, deialdi honetan eskabideak aurkezteko adierazten den epea bukatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori berariazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ez dela onartu ulertuko da, gerora egin daitekeen ekarpenaren kaltetan izan gabe.

13. artikulua. Zenbatekoak.

Erakunde, elkarte edo norbanako bakoitzari zenbateko dirulaguntza emango zaion ezartzeko, honako hau kontuan hartuko da:

- Udalaren aurrekontuan xede horretarako aurreikusitako zenbatekoa.
- Aurkeztutako ekintzen edo eskaeren kopurua eta nolakotasuna.

Bestalde, udalak ekintza baterako gastutzat onartutako kopurua baino gastu txikiagoa egiten bada edo ekintza egiten ez bada, dirua itzuli egin beharko da.

14. artikulua. Ordainketak.

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen dira dirulaguntza hauen ordainketa moduak.

15. artikulua. Bateragarritasuna.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketa egongo dirulaguntza publikoekin, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murritzu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzuli behar izanez gero, pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Lezoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

VI. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

16. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau orokor eta espezifikoetan jasotakoez gain, hauek ere entitate onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Diruz lagundutako jarduera egitea edota helburuak betetzea.
- b) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea eta horietan ezarritakoa betetzea.
- c) Lezoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailetzari dagozkion finantza-kontroleko jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- d) Eskaera-orrian adierazi ez den beste administrazio edo erakunde publikoei (estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako eskatutako edo erakundeetatik jasotako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, Lezoko udalari horren berri ematea.
- e) Dirulaguntza emateko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero (objektiboa nahiz subjektiboa izan), dirulaguntza eman duen organoa aldaketa horren jakinaren gainean jartzea eta beronen onespina izatea.
- f) Ekintzei lotutako publizitatean Lezoko Udala babesletzat adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz
- g) Dirulaguntza jaso izanagatik jarduera edo zeregina bertan behera edo eskabidean adierazitakotik nabarmen aldatuko balitz, onuradunak jasotako diru kopurua itzultzeko betebeharra izango du.
- h) Oinarri hauetan jasotako beste edozein betebeharrak.
- i) Dirulaguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Lezoko Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloetan jasotakoak beteko dira.

- j) Lezoko Udalak lagundutako egitasmoetan sortutako euskarriei (paperezkoak zein digitalak) herri intereseko erabilera eman ahal izango zaie.

Udalak edozein momentutan eskatu diezaieke entitate onuradunei betebeharrak hauek betetzen dituztela kreditatu dezaten.

17. artikulua. Ez betetzea.

Oinarri-arau hauetan xedaturiko baldintzak betetzen ez badira dirulaguntzaren berrikusketa egingoda, eta hala dagokionean, deuseztatu, gutxiagotu edota itzularazi azaroaren 38/2003 dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. eta 52. artikuluek eta ondorengoek aurreikusten duten eran.

VII. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

18. artikulua. Balorazio irizpideak.

Oinarri arau hauen eranskin moduan agertzen diren dirulaguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen direnak izango dira.

VIII. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

19. artikulua. Justifikazioa

Dirulaguntzak justifikatzeko pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Egindako jardueraren memoria; bertan diruz lagundutako jarduerak emakumeen eta gizonen egoeran nolako inpaktua izan duen jakiteko, sexuaren arabera banakatuta aurkeztuko dira pertsona guztiei (jasotzaile edo partehartzaileak, langileak, antolatzaileak eta elkarteko zuzendaritzakideak) buruzko kopuru datuak.
- b) Diruz lagundutako jardueraren sarrera gastuen balantze zehaztua.
- c) Diruz lagundutako jardueraren gastuak osotara justifikatzen dituzten jatorrizko egiaztagiri eta fakturak. Diruz lagundutako jarduerarekin eta datarekin bat egin beharko dute. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak.

Fakturetan haxe agertuko da:

- Erakundearen edo/eta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Kontzeptua.

- d) Udalak dirulaguntza ekintza jakin baterako izendatzen badu, eta urtean zehar hasierako asmoak beste ekintza batekin ordezkatu nahi badira, udalari asmoaren

berri eman behar zaio eta honen oniritzia jaso.

e) Dokumentazio grafikoa edota ikus-entzunezkoa, balego.

f) Oinarri espezifikoetan jasotako beste edozein egiaztagiri

IX. INTERPRETAZIOA

Oinarri-arau hauen interpretazioan edota garapenean sor daitezken zalantzak erabakia hartzen duen organoak argituko ditu.

X. ARAUDI OSAGARRIA

20. artikulua. Araudi osagarria.

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Lezoko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena, Lezoko Udalaren Dirulaguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoak jasotakoa eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen eta garatzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren xedapenak.

Halaber, araudi horietan aintzat hartu ez diren kontuetarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko dira.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena; Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, eta Lezoko Udalaren III. Berdintasun Plana.

Indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Lezoko VI. Plangintzaldia.

Baita ere, aplikagarri da Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 24ko EBAO, L 352/1).

OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. artikulua. Lezoko kirol entitateen ohiko lehiaketara bideratutako kirol jarduera garatzeko dirulaguntzak arautzen duten oinarri arau espezifikoak.

Lezoko Udalaren aurrekontuak irabazi asmorik ez duten kirol klub eta elkarteei zuzenduriko partidak biltzen ditu.

Kirol eremuan lan egiten duten entitateek dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, eta aurrekontuan bildutako ekintzen publizitatea bermatzeko, ondoko oinarriak finkatzen dira:

a.- Xedea

Lezoko, edo eskualdeko izaera eta Lezoko herritarrei zerbitzua eskaintzen dien, irabazi asmorik gabeko kirol entitateek 2025-2026 denboraldian federazioen antolaketari (liga eta txapelketetan parte-hartzea) dagokion kirol jarduera garatzera zuzenduriko dirulaguntzak arautzea eta ematea dute helburu oinarri-arau hauek.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri-arau hauek arautzen dituzten dirulaguntzak eskatu ahal izateko, kirol entitateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte (2025/2026 denboraldiari (2025ko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra) edo 2025 urteari dagozkionak):

Oinarri orokorretan jasotakoaz gain irabazi asmorik gabeko kirol entitate juridiko pribatuak izatea eta Gipuzkoan Eskola Kirolari buruz indarrean dagoen arautegia betetzea.

Deialdi honetan ez dira onuradun izango mendizaletasuna, ehiza, skate-scooter, herri kirolak eta txirrindularitza modalitateak. Modalitatearen barne estruktura eta praktika motaren ezaugarriak kontuan hartuta, antolatutako ekintzen arabera jasoko dituzte dirulaguntzak eta dirulaguntza lerro honetan ez dute parte hartzerik izango.

Eskualdeko izaerako klubak izanik, Oarsoaldeako kirol koordinazio mahaian hartutako akordioen ondorio, trataera berezia izango duten klubek beste dirulaguntza lerro berezia izango dute eta dirulaguntza lerro honetan ez dute parte hartzerik izango. Oarsoaldeako kirol koordinazio mahaian hartutako akordioen baitan eskualdeko klub izaera eman zaien klubek dirulaguntza lerro izendunak izango dituzte.

c.- Eskabideak.

Oinarri orokorreko 8. artikuluan jasotakoaz gain, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a. Araudi honek arautzen duen kirol jarduerari dagokion denboraldiko egitasmo memoria eta gastu eta sarreraren aurrekontua.
- b. Lizentzia indarrean duten kirolarien (jokalari, entrenatzaile, eta epaile) kopurua eta izen-zerrenda (sexuka bereizita), dagokion federazioak edo Foru Aldundiak emanda, kasuak kasu; bertan azaldu beharko da non erroldatuak dauden.
- c. Zerrenda bat egingo da ere, non zehazten den teknikari eta epaile bakoitzaren kirol formazioa eta erabiliko duen hizkuntza bere lanean (saio eta partida edo txapelketak).

- d. Lezoko Udalarekin taldeak egindako kolaborazioen zerrenda kirol ekintzak sustatzen edo instalazioak kudeatzen (aurreko ikasturtekoa).
- e. Herritar guztiei zuzenduriko sustapeneko kirol-ekintzen antolaketa (aurreko ikasturtean egin den ekintza bakoitzaren dokumentazioa erantsirik).
- f. Entitateak barne mailan edo bere inguruan euskararen erabilera normalizatzeko (edo elkarte euskalduntzeko) ekimena aurreikusten badu, ekimen horri dagokion dokumentazioa.
- g. Berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta partaidetza, indarkeriarik eza eta indarkeria matxista prebenitzeko jarduerak, aurreikusten badira, antolatzeari buruzko dokumentazioa.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzerakoan modalitate batek bere denboraldia hasia ez badu, dokumentazio guztia aurreko ikasturteari dagokiona izango da (urte naturaleko jardueretan, 2025koa).

Entitateari buruzko dokumentazioa eta programa ez badira aurkezten, dirulaguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da; beste dokumentazioaren kasuan, bakarrik baloratuko dira aurkeztuak izan diren atalak.

d.- Epeak.

Eranskin honetako dirulaguntza eskaera egiteko epea, urriaren 6ean hasita (barne) 12 egun naturalekoa izango da.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntza ematea onartu ondoren, ordainketa era honetan gauzatuko da:

- Dirulaguntzaren %70a gastuen konturako aurrerakin moduan, hura onartzen denean.
- Gainerako %30a, eskatutako dokumentazioa Lezoko udaletxean aurkeztu ondoren.

Salbuespen gisa eta egoerak horrela eskatzen duenean, bigarren zatiaren portzentaje bat aurreraterik egongo da. Aurrerapen eskaera, kiroleko sailari luzatuko zaio behar bezalako txosten baten bitartez arrazoituz. Eskaera aztertu ondoren, bidezkoa ikusten bada, organo ebatzaileari proposamena egingo zaio.

Dirulaguntza justifikatzeko eta bigarren ekarpena jaso ahal izateko, onuradunak oinarri orokorretako 20. artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

Dokumentazio hau aurkezteko epea 2026eko urriaren 9an amaituko da .

Bereziki bultzatu nahi diren arlo hauetatik eratortzen dira baloratzeko irizpideak:

- Herri partaidetza duen kirola.
- Euskal Herriko kirolak.

- Euskararen erabilera normalizatua egiten duen kirola.
- Herritarren gozamenerako ikuskizuna eskaintzen duen jarduera.
- Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdiko kirolariekin harremanak estutzea laguntzen duen kirola.
- Eskola kiroleko estrukturarekin sinergiak.
- Adin talde guztien parte hartzea.
- Kirol modalitateen aniztasuna.
- Berdintasuna eta emakumeen ahalduztzea eta parte-hartzea, oldarkeriarik eza eta indarkeria matxistaren prebentzioa bultzatzen duen kirola

Horren ondorio, kirol entitateen ohiko jarduera laguntzera zuzenduta dagoen diru kopurua ondoko kontzeptu hauen artean eta baremoen arabera banatuko da:

1. Kirol lizentzien kopurua eta emakumeen parte-hartzea.
2. Udalarekin lankidetzak kirolaren sustapenean
3. Kirol titulazioak
4. Herritar guztiei zuzenduriko ekintzak antolatzeagatik
5. Euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak
6. Berdintasuna, emakumeen ahalduztzea, kirolean indarkeriarik eza eta indarkeria matxistaren prebentzioa sustatzeko ekintzak
7. Ezohiko ekitaldietara joateko
8. Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdiko kirolariekin harremanak estutzea laguntzen duen kirola.

Irizpidea		Puntuak
Kirol lizentzia federatuen kopurua,edo eskola kiroleko lizentziak partaidetzako kirolarien kasuan,sexuka bereizita.	Gizonezkoen lizentzia bakoitzeko	0'5
	Emakumezkoen lizentzia bakoitzeko	1
	Lezoko gizonen lizentzia bakoitzeko	1
	Lezoko emakumeen lizentzia bakoitzeko	2
	Gizonak: pilota eta herri kirolak lizentzia bakoitzeko	2
	Emakumezkoak: pilota eta herri	4

	kirolak lizentzia bakoitzeko	
	Infantil eta kadete mailetakako ikastetxeetako partaidetzako lizentziak, klubeko lizentziatzat hartuko dira, klubak ikastetxearekin harremana badu, eskola kiroleko arautegia betetzen badu eta lezoko eskola kiroleko batzordeak horrela ziurtatzen badu. Alebin mailako kirolarien kasuan, entitateak garatzen duen modalitatea eskola kiroleko jarduera arruntean ez bada lantzen eta kirolari horiek Lezoko eskola kiroleko estrukturan programan parte hartzen badute, klubeko lizentziatzat hartuko dira.	
Kirol Titulazioa	III mailako entrenatzaile titulua edo baliokidea duen JFK zientzietako graduaduna.	10
	III mailako entrenatzailea edo JFKzientzietan graduaduna.	8
	II mailako entrenatzailea. Lehen Hezkuntza Gradua (GH espezialista).	4
	I mailako entrenatzailea edo TAFyD	2
	Arbitroak	2
	Emakumezkoen kasuan puntuazioa bikoiztuko da	
Herritar guztiei zuzenduriko ekintzak antolatzeagatik	Ekintzak aztertu ondoren 5 puntu arte banatzerik egongo da ekintza bakoitzarengatik.	1-5
Udalarekin lankidetzak kirolaren sustapenean.	Ekintza puntual bakoitzeko	1
	Izaera jarraiko lankidetzagatik	6
	(udalak bere kirol egitasmoa aurrera eramateko kirol taldeen beharrazatzen du batzuetan; lankidetzak udalak honelako batean laguntzeko eskatzen duenean izaten da).	
Ezohiko ekitaldietara joateko	Gipuzkoako Lurralde historikotik kanpo ospatzen diren egutegi ofizialeko ezohiko lehiaketetara joateagatik edo kirol modalitateetako egutegi ofizialeko lehiaketa arruntetara joateagatik kirol modalitate honek praktikarako beste lurraldetasun maila edo eremu bereziak eskatzen baditu. 3 dirulaguntza egongo dira gehienez; gutxienez 150 euro eta gehienez 450 eurotakoak beti aurrekontuaren %50a gehienez ordainduko delarik. Aurkeztutako eskaeren artean hiru aukeratuko dira. Irizpide nagusia ez bada (LLHH kanpo desplazamenduak) eman, dirulaguntza banatuko da baina, garraioa ordaintzera zuzenduko da beti.	Ekimen bakoitzari diru kopuru finkoa aurrekontua agortu arte.
Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdiko kirolariekin harremanak estutzea laguntzen duen kirola.	Bi dirulaguntza emango dira gehienez udal teknikariaren txostenaren arabera.	Diru kopuru finkoa
Euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak.	Bere jardura euskaraz garatzen duen teknikari bakoitzeko	1
	Konpromiso hau ikuskatuko da. Ez bada betetzen jasotzailea ohartuko da; bigarren aldi batean huts egiteak 15 atalean jasotakoa aplikatzea suposatuko du.	
	Euskararen erabilera sustatzeko edo elkarte euskalduntzeko ekimena	700,00 €

	Elkarteek aurkeztutako ekimenen artean bat aukeratuko da eta egitasmoa burutu eta aurkeztu ondoren dirulaguntza jasoko du onuradunak. Aurkeztutako ekimenak ez badira egokiak ikusten dirulaguntza ez da emango.	
Berdintasuna sustatzeko ekimenak.	Berdintasuna sustatzeko ekimenak	700,00 €
	Elkarteek aurkeztutako ekimenen artean bat aukeratuko da eta egitasmoa burutu eta aurkeztu ondoren dirulaguntza jasoko du onuradunak. Aurkeztutako ekimenak ez badira egokiak ikusten dirulaguntza ez da emango.	

Eskaera egiten duenak, atal bakoitzean bere merituen arabera puntuak jasoko ditu. Irizpide bakoitzari dagokion diru kopurua (ondorengo taulan zehazten den moduan) eskatzaile guztiek jasotako puntu guztien artean zatituko da, eta era horretara kalkulatu da atal bakoitzeko puntu baten balio ekonomikoa. Balio ekonomiko hori onuradunak atal bakoitzean lortutako puntuekin biderkatuko da, eta atal guztien emaitzen batuketak dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa zehaztuko du.

IRIZPIDE BAKOITZEKO ASIGNAZIOA		
Irizpidea		Asignazioa
a	Kirol lizentzien kopurua	31.000,00 €
b	Kirol titulazioak	4.250,00 €
c	Herritar guztiei zuzenduriko ekintzak antolatzeagatik	1.000,00 €
d	Udalarekin lankidetzak kirolaren sustapenean	1.000,00 €
e	Ezhoiko ekitaldietara joateko	1.350,00 €
f	Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdiko kirolariek harremanak estutzea laguntzen duen kirola	500,00 €
g	Euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak	3.200,00 €
h	Berdintasuna sustatzeko ekimenak	700,00 €

Irizpide bati dagokion asignazioa erabiliko ez balitz, diru kopuru hori “kirol lizentzien kopurua” irizpidearen asignazioa gehituko luke.

c, d, e, f, g eta h irizpideak aurreko ikasturteko ekimenei dagokie.

f.- Justifikazioa.

Oinarri orokorretako 19. Artikuluan jasotakoaren baitan egingo da justifikazioa.

2. artikulua. Gizarte zerbitzuen alorrean diharduten elkarteentzako 2025eko dirulaguntzak arautzen duten oinarri arau espezifikoak.

Lezoko Udalaren aurrekontuak irabazi asmorik ez duten Gizarte Zerbitzuak arloko elkarte eta entitateei zuzenduriko partidak biltzen ditu.

Gizarte Zerbitzuak eremuan lan egiten duten entitateek dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, eta aurrekontuan bildutako ekintzen publizitatea bermatzeko, ondoko oinarriak finkatzen dira:

a.- Xedea

Deialdi honen xedea da 2025. urterako Gizarte eskuhartzearen eremuan ekintzak burutzen dituzten elkarteei zuzendutako dirulaguntzak emateko irizpideak ezartzea. Hau da, gizarte zerbitzuen gaitan, pertsonen, familien eta taldeen autonomia pertsonala eta gizarte integrazioa babestu eta sustatzeko ekintzak burutzen dituzten entitateei zuzenduak.

Ekintza edo egitarau hauek honakoak izango dira:

- Elkartearen jardueraren arrunta mantentzea.
- Elkartearen jardueraren sensibilizazio, prestakuntza, informazioa eta zabaltzeko ekintza espezifikoak egitea.
- Elkartearen jardueraren xede diren taldeentzat esku hartzeko programa espezifikoak garatzea.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Dirulaguntza jasotzeko aukera izango dute, oinarri orokorretan jasotakoaz gain, irabazi asmorik gabeko ondorengo baldintzak betetzen dituzten Elkarteak:

- a) Gizarte zerbitzuekin edo eta osasunarekin zerikusia duten ekintzak garatzea.
- b) Elkartearen eskuhartzea Gipuzkoako Lurralde historikoaren eremuan garatzea.
- c) Dirua irabaztea xede ez izatea, izaera juridikoa edozein dela ere, elkarte, fundazioa, gizarte ekimenerako kooperatiba edo dirua irabaztea xede ez duen beste edozein, eta helburu publiko edo gizarte interesa betetzea sustatzea.

c.- Eskabideak.

Oinarri orokorreko 8.artikuluari jasotakoaz gain, eskatzaileak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Aurkeztutako programa, proiektu edo jardueraren txosten zehaztuta.
- Dirulaguntzaren xede izango den programaren aurrekontua.
- Entitatearen urteko aurrekontua (gastuak eta sarrerak).

Dokumentazio osagarriari dagokionez, eskatutako dokumentazioaz gain, udalak beharrezkoa iruditzen zaion informazio osagarria eskatu ahal izango du aurkeztutako jardueraren baloratzeko.

d.- Epeak.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango dira eta egutegiko 10 eguneko epea utziko da eskabideak aurkezteko, argitara ematen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Udalak elkarte bakoitzari emango dion dirulaguntza zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Udalak aurrekontuetan zehaztutako kopurua.
- Guztira Elkarte eskatzaileek lortutako puntuazioa.

Ordainketei dagokienez, erabakian zehaztuko da onartutako dirulaguntza ordainketa bakar batean edo zatika ordainduko den, eskatutako dirulaguntzaren ezaugarrien arabera.

Balorazio irizpideei dagokionez, dirulaguntza ematerakoan, honako arloak kontuan hartuko dira, baldin eta egindako eskarian agertzen badira:

- a) Elkartea Lezokoa izatea. Puntu bat.
- b) Elkarreak bere jarduera Lezon garatzea edo bere zerbitzuekin Lezoko herritarrak artatzea. 2 Puntu
- c) Elkarreak egiten dituen jarduerak gizarte zailtasunak duten herritarrei zuzenduta egotea eta pertsona, familia edo beste maila bateko hobekuntza ematea. Puntu bat.
- d) Programan/proiektuan genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala txertatzea. Puntu bat.
- e) Elkarreak Euskara Plana onartuta izatea edo plana prestatzen aritzea aholkulariekin dirulaguntza eskaera egiteko unean. Puntu bat

f.- Justifikazioa.

Gizarte programak garatzeko dirulaguntza jasotzen duten Elkarrekin oinarri orokorreko 19. artikuluan zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute Udalean 2026ko otsailaren 28a baino lehen.

Elkarreak garatu beharreko oinarrizko lanak egiten dituzten profesionalen soldata gastuak ez dira diruz lagunduko.

Dirulaguntza zurrizten ez bada, dirua itzuli beharko da.

3. artikulua. Euskaltegian euskara ikasteko (Dirulaguntza programa 1).

a.- Xedea

Dirulaguntza hauen xedea da euskaltegi homologatu batean euskara ikasten edo hobetzen jardun duten lezoarrei matrikula ordaintzen laguntzea.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

1. Dirulaguntza eskuratu ahal izango du Lezoko udalerriko euskaltegian edo beste edozeinetan izena eman eta ikastaroak egiten dituen lezoar orok.

2. Dirulaguntza eskatzen dutenek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Lezoko Udalak, euskara sustatzeko martxan jarritako plangintzaren batean parte hartzen duten Lezokoak ez diren norbanakoak (enpresak, merkataritza euskalduntzeko planak, hitzarmengintza, enpresak...)
- b. Euskarazko ikastaroan gutxienez %75eko asistentzia egiaztatzea, ondoko epeei dagokienez:
 - Neguko ikastaroak: Ordu 1 egunean (5 ordu astean). Merkatarien kasuan aplikatzen den ikastaroaren arabera.
 - Udako ikastaroak: ez da ordu-kopuru jakinik eskatzen.
 - Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoan jasotzen den C1 edo C2 mailako ikastaroak: 120 ordu gutxienez.
 - Barnetegiko ikastaroak: Hilabete bat gutxienez.
 - Etorri berrientzako ikastaroak: AISA ikastaroak edo etorriberrientzat propio antolatutako ikastaroak.
- c. Asistentzia zehazterakoan, ez dira hutsegite gisa hartuko honako kasu hauek:
 - Ikasle batek lanagatik ezin badu euskaltegiara joan ordutegi horretan (enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - Gaixotasuna (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
 - Haurdunaldiagatik atsedena behar izatea (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
- d. Lezoko udaleko gizarte zerbitzuek bere programaren baitan, aldeko txosten bidez, ikastaro normal edo berariazkoetan parte hartzea onesten duen kasuetan, ikasle gaiak ez dute matrikularik aurretik ordaindu beharko, Lezoko Udala arduratuko da horretaz. Era berean, aldeko txostenean jaso dagoen kasuetan, 7. artikuluko a. eta b. puntuetan jasotakoak ere, ez dira bete beharrekoak izango.
- e. HABEren dirulaguntza jasotzeko baldintzak betez gero, HABEri dirulaguntza eskatu izana.

Udako ikastaroetara doazenak:

1. Uda aurreko ikasturtean euskaltegi batean aritu izana lehenetsiko da (%75eko gutxieneko asistentzia edukita).

c.- Eskabideak.

Oinarri orokorretan eskatutakoaz gain, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza-eskabide normalizatua (Eranskina III), behar bezala beteta eta sinatua.
- Gastuaren justifikazioa (Matrikulen ordainagiriak, fakturak, ...), Oinarri espezifikotako, 1. Artikuluko, b ataleko 2.e puntuari jasotzen diren kasuak ezik).

- Beste dirulaguntzaren bat dagoen kasuetan, erakunde, instituzio eta abarretan aurkeztutako eskabideari buruzko aitortpena edo, hala balitz, jaso duen laguntzei buruzko informazioa (Eranskina III inprimakiaren aurreko orrialdean aitortzen da).
- Euskaltegiaren ziurtagiria. Bertan ikasturtean egindako urratsaren errendimenduaren eta izandako asistentzia indizeak jaso beharko dira.
- Matrikula aurreratu nahi dutenen kasuan, Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen aldeko txostena edo ziurtagiria.
- Lezon erroldatuak ez daudenen kasuan lan egiten duen Lezoko enpresaren edo erakundearen ziurtagiria edota Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen aldeko txostena.

d.- Epeak.

Eskabide ezberdinak aurkezteko epeak ondokoak dira kasu bakoitzeko:

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasi eta,

- Iraila-ekaina bitartean egindako ikastaroak 2025-07-04ra (Barne).
- Uztaila-iraila bitartean egindako ikastaroentzako 2025-10-14ra (Barne).
- Hirugarren epe bat zabalduko da aurreko bi epeetatik kanpo geratu direnentzat. Edonola, hirugarren epe honetan, beti ere eskaerak 2025-12-31 (Barne) baino lehen egin beharko dira.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza programa honentzat aurrekontuetan jasotako 481.02.335.00 partida (deialdi honi dagokionez, 20.000,00 euro) baliatuko da. Eskaerak aurkeztutako ordenaren arabera esleituko dira.

Euskara ikasteagatik ordaindutako matrikularen %100a ordainduko da, gehienez ere 650,00 euro arte.

f.- Justifikazioa.

Beka eskaera, jarduera egin eta gero egiten denez, justifikazioa eskaerarekin batera egiten da. Bertan aurkeztu beharreko dokumentazioa *c. Eskabideak* atalean jasotzen da.

4. artikulua. Unibertsitateko udako euskaraz (UEU eta EHU-UPV) emandako ikastaroetan matrikulazioa diruz laguntzeko (Dirulaguntza programa 2).

a.- Xedea

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) edota Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) euskara hutsean antolatzen dituzten udako ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak ematea.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. Artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

- Ikaslea edota erretiratua izatea, edo langabezian egotea.

c.- Eskabideak.

Oinarri orokorretan eskatutakoaz gain ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza-eskabide normalizatua (Eranskina III), behar bezala beteta eta sinatua.
- Langabea, ikaslea edo erretiratua izatea ziurtatzen duen agiria.
- Ikastaroaren matrikula agiria edota asistentzia ziurtagiria.
- Gastuaren justifikazioa (Matrikulen ordainagiriak, fakturak, ...), Oinarri espezifikotako, 1. Artikuluko, b ataleko 2.e puntuan jasotzen diren kasuak ezik).
- Beste dirulaguntzaren bat dagoen kasuetan, erakunde, instituzio eta abarretan aurkeztutako eskabideari buruzko aitortpena edo, hala balitz, jaso duen laguntzei buruzko informazioa (Eranskina III inprimakiaren aurreko orrialdean aitortzen da).

d.- Epeak.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdiari dagokion urte naturala izango da.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza programa honentzat aurrekontuetan 200,00 euro aurreikusten dira gehienez ere. Dirua eskaerak egin ahala banatuko da. Eskaerak guztiei kasu egiterako garaian, ez balego kreditu nahikorik, orduan hainbanaketa bidez zehaztuko litzateke eskaera bakoitzaren dirulaguntza kopurua.

Ordaindutako matrikularen %100a ordainduko da, gehienez ere 200,00 euro arte.

f.- Justifikazioa.

Beka eskaera, jarduera egin eta gero egiten denez, justifikazioa eskaerarekin batera egiten da. Bertan aurkeztu beharreko dokumentazioa *c. Eskabideak* atalean jasotzen da.

5. artikulua. Aisialdiko begirale/zuzendari edo eskola kiroleko begirale laguntzaile ikastaroa egiteko (Dirulaguntza programa 3).

a.- Xedea

Aisialdiko begirale/zuzendari titulu ofiziala ateratzeko edo kirol begirale formazioa eskuratzeko ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak ematea.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. Artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

- Ikastaroak euskaraz izan behar du eta Eusko Jaurlaritzak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak homologatua.
- Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehieneko epearen barruan titulua ateratzea.

c.- Eskabideak.

Oinarri orokorretan eskatutakoaz gain ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza-eskabide normalizatua (Eranskina III), behar bezala beteta eta sinatua.
- Gastuaren justifikazioa (Matrikulen ordainagiriak, fakturak, ...), Oinarri espezifikotako, 1. Artikuluko, b ataleko 2.e puntuan jasotzen diren kasuak ezik).
- Beste dirulaguntzaren bat dagoen kasuetan, erakunde, instituzio eta abarretan aurkeztutako eskabideari buruzko aitortpena edo, hala balitz, jaso duen laguntzei buruzko informazioa (Eranskina III inprimakiaren aurreko orrialdean aitortzen da).
- Aisialdiko/Kirol eskolak egindako ziurtagiria, non egiaztatuko den:
 1. Eskatzaileak ikastaroa gauzatu duela eta alderdi teorikoa gainditu duela
 2. Ordaindutako matrikularen zenbatekoa
 3. Ikastaroaren homologazioa
 4. Zein hizkuntzatan burutu den ikastaroa

d.- Epeak.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdiari dagokion urte naturala izango da.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza programa honentzat aurrekontuetan 3.500,00 euro aurreikusten dira gehienez ere. Dirua eskaerak egin ahala banatuko da. Eskaerak guztiei kasu egiterako garaian, ez balego kreditu nahikorik, orduan hainbanaketa bidez zehaztuko litzateke eskaera bakoitzaren dirulaguntza kopurua.

Ordaindutako matrikularen %100a ordainduko da, gehienez ere 500 euro arte.

f.- Justifikazioa.

Beka eskaera, jarduera egin eta gero egiten denez, justifikazioa eskaerarekin batera egiten da. Bertan aurkeztu beharreko dokumentazioa *c. Eskabideak* atalean jasotzen da.

6. artikulua. Elkarteen/Erakundeen lokaletako edota merkataritzako enpresetako errotulua euskaraz jartzeko (Dirulaguntza programa 4).

a.- Xedea

Elkarteen/Erakundeen lokaletako edota merkataritzako enpresetako errotulua euskaraz jartzeko dirulaguntzak ematea.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. Artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

- Errotulua duen lokalak Lezon kokatua behar du.
- Errotuluaren testuak euskaraz idatzita egon behar du.
- Euskaraz testuak ondo idatzita egon behar du; horregatik, Euskara Sailak gainbegiratua emango dio aurrez.
- Errotuluko testua izen berezia bada ez da emango dirulaguntzarik.
- Establezimenduetako edo ibilgailuetako errotuluak lagundu daitezke (beti ere bakarra lagunduko da).
- Errotulu berriak edo berritzen direnak lagundu daitezke.

c.- Eskabideak.

Oinarri orokorretan eskatutakoaz gain ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza-eskabide normalizatua (Eranskina III), behar bezala beteta eta sinatua.
- Gastuaren justifikazioa (Matrikulen ordainagiriak, fakturak, ...), Oinarri espezifikotako, 1. Artikuluko, b ataleko 2.e puntuan jasotzen diren kasuak ezik).
- Beste dirulaguntzaren bat dagoen kasuetan, erakunde, instituzio eta abarretan aurkeztutako eskabideari buruzko aitorpena edo, hala balitz, jaso duen laguntzei buruzko informazioa (Eranskina III inprimakiaren aurreko orrialdean aitortzen da).
- II Eranskina, behar bezala beteta.
- Errotuluaren argazkia (jarri beharreko tokian jarrita dagoela ziurtatzeko).

d.- Epeak.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdiari dagokion urte naturala izango da.

Kontuan izan behar da, errotulua jarri aurretik testua hizkuntzaren aldetik zuzena dela ziurtatzeko, Lezoko Udaleko Euskara Sailera igorri beharko dela. Hala egin ez eta testuak hizkuntz akatsak baditu, dirulaguntza ez emateko motibo izango da.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza programa honentzat aurrekontuetan 1.500,00 euro aurreikusten dira gehienez ere. Dirua eskaerak egin ahala banatuko da. Eskaerak guztiei kasu egiterako garaian, ez balego kreditu nahikorik, orduan hainbanaketa bidez zehaztuko litzateke eskaera bakoitzaren dirulaguntza kopurua.

Ordaindutako fakturaren %50a ordainduko da, gehienez ere 500 euro arte.

f.- Justifikazioa.

Dirulaguntza eskaera, jarduera egin eta gero egiten denez, justifikazioa eskaerarekin batera egiten da. Bertan aurkeztu beharreko dokumentazioa *c. Eskabideak* atalean jasotzen da.

7. artikulua. *Puntu eus* domeinua hartzeko (Dirulaguntza programa 5).

a.- Xedea

Web orria izendatzeko 'puntu *eus*' domeinua erabiltzea.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. Artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

- Web orria duten Lezoko erakunde, elkarte, komertzioa edo enpresek 'puntu eus' domeinuarekin izendatuta izatea.
- Web orriko edukia euskaraz edo elebitan egotea.
- Web orriaren edukietan genero perspektiba eta hizkuntza ez sexista kontuan izan beharko dira.

c.- Eskabideak.

Oinarri orokorretan eskatutakoaz gain ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza-eskabide normalizatua (Eranskina III), behar bezala beteta eta sinatua.
- Gastuaren justifikazioa (Matrikulen ordainagiriak, fakturak, ...), Oinarri espezifikotako, 1. Artikuluko, b ataleko 2.e puntuan jasotzen diren kasuak ezik).
- Beste dirulaguntzaren bat dagoen kasuetan, erakunde, instituzio eta abarretan aurkeztutako eskabideari buruzko aitortpena edo, hala balitz, jaso duen laguntzei buruzko informazioa (Eranskina III inprimakiaren aurreko orrialdean aitortzen da).
- Web orriaren URL-a.

d.- Epeak.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdiari dagokion urte naturala izango da.

Eskaerak bi baldintza hauetako bat bete beharko du:

- 2025 urtearen barnean kontratatutako domeinuak.
- 2024an kontratatutako domeinuen bigarren zatia.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza programa honentzat aurrekontuetan 200,00 euro aurreikusten dira gehienez ere. Dirua eskaerak egin ahala banatuko da. Eskaerak guztiei kasu egiterako garaian, ez balego kreditu nahikorik, orduan hainbanaketa bidez zehaztuko litzateke eskaera bakoitzaren dirulaguntza kopurua.

Ordaindutako fakturaren %100, 75,00 euro arte lehen urtean eta %50a, 50,00 euro arte, hurrengo urtean.

f.- Justifikazioa.

Dirulaguntza eskaera, jarduera egin eta gero egiten denez, justifikazioa eskaerarekin batera egiten da. Bertan aurkeztu beharreko dokumentazioa *c. Eskabideak* atalean jasotzen da.

8. artikulua. Web-orriak euskaratzeko (Dirulaguntza programa 6).

a.- Xedea

Euskarak web orrietan duen presentzia areagotzeko asmoarekin, web-orriak euskaraz jartzeko dirulaguntzak ematea du helburu Lezoko Udalak.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. Artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

- Jasotzaileak izango dira, helbide fiskala Lezon kokatua duten pertsona juridikoak.
- Dirulaguntza behin bakarrik eskatu ahal izango da.
- Web-orriak gutxienez elebitan izango dira eta itzulpen lanak lagunduko dira diruz. Dirulaguntza jasotzeko hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna bermatu beharko dira.

- Ez dira diruz lagungarri izango, ez web pertsonalak, ez irakaskuntzari lotutakoak, ez iraingarriak edo alderdi politikoenak edota Lezoko Udalak lehendik diruz lagundutakoak.
- Enpresa berak ezingo du beste web orri bat izan dominio ezberdinarekin negozio edo erakunde berari lotutakoa.
- Web orriaren edukietan genero perspektiba eta hizkuntza ez sexista kontuan izan beharko dira.

c.- Eskabideak.

Dirulaguntza jaso ahal izateko, zuzen idatzita egon beharko du webean argitaratzen den testuak eta Euskara Zerbitzuak aztertuko du dirulaguntza eman aurretik.

Eskaera egiteko, oinarri orokorretan eskatutakoaz gain ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza-eskabide normalizatua (Eranskina III), behar bezala beteta eta sinatuta.
- Gastuaren justifikazioa (Matrikulen ordainagiriak, fakturak, ...).
- Beste dirulaguntzaren bat dagoen kasuetan, Erakunde, instituzio eta abarretan aurkeztutako eskabideari buruzko aitorpena edo, hala balitz, jaso duen laguntzei buruzko informazioa (Eranskina III).
- Web orriaren URL-a.
- Jatorrizkoaren eta itzulpenaren testua Word formatuan.

d.- Epeak.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdiari dagokion urte naturala izango da.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza programa honentzat aurrekontuetan 4.000,00 euro aurreikusten dira gehienez ere. Dirua eskaerak egin ahala banatuko da. Eskaerak guztiei kasu egiterako garaian, ez balego kreditu nahikorik, orduan hainbanaketa bidez zehaztuko litzateke eskaera bakoitzaren dirulaguntza kopurua.

Diru laguntzak esleitzeko eta neurtzeko irizpideak, honakoak izango dira:

- Web orria euskara hutsean jarriz gero, kostuaren %60 ordainduko du Udalak (gehienez 500 euro).
- Web orriko hasiera orria euskara hutsean eta gainontzekoa euskaraz eta beste hizkuntzaren batean jarriz gero, kostuaren %50 ordainduko du Udalak (gehienez 400

euro).

- Web orria euskaraz eta beste hizkuntzaren batean jarritz gero, kostuaren %30 ordainduko du Udalak (gehienez 200,00 euro).

f.- Justifikazioa.

Dirulaguntza eskaera, jarduera egin eta gero egiten denez, justifikazioa eskaerarekin batera egiten da. Bertan aurkeztu beharreko dokumentazioa *c. Eskabideak* atalean jasotzen da.

9. artikulua: Udalerri gaindikotako eremuetan euskara sustatzen dabilten erakundeentzako jardueraren laguntza (Dirulaguntza programa 7).

a.- Xedea

Udalerri gaindikotako eremuetan euskara sustatzen dabilten erakundeentzako jardueraren laguntza.

b.- Jasotzaileak eta betebeharreko baldintzak.

Oinarri orokorretako 7, 10 eta 16. Artikuluan jasotakoaz gain, bete beharreko baldintzak:

- Euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzea.
- Irabazi asmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea

c.- Eskabideak.

Eskaera egiteko, oinarri orokorretan eskatutakoaz gain ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Dirulaguntza-eskabide normalizatua (Eranskina III), behar bezala beteta eta sinatuta.
- Diruz laguntzea nahi den jardueraren edo egitasmoaren memoria labur bat.

d.- Epeak.

- Eskabideak aurkezteko epea urte naturala izango da.
- Dirulaguntzaren zuriak egiteko azken eguna 2025-12-19 (egun hau barne) izango da.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdiari dagokion urte naturala izango da.

e.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.

Dirulaguntzak ezingo du inolako ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzekin batera).

Dirulaguntza programa honentzat aurrekontuetan 9.000,00 euro aurreikusten dira gehienez ere. I eranskinean jasotzen den irizpideen arabera puntuazioak emango zaizkio eskaera egin duten erakunde bakoitzari eta eskatzaile bakoitzak lortutako puntuek baita proportzionalki banatuko da programa honentzako aurreikusitako diru kopurua.

Euskara teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta Batzorde ebaluatzaileara eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere diktamena eta erabaki proposamena egin dezan. Jarraian, interesatuari jakinaraziko zaio eta bost egun naturaleko epea izango du alegazioak aurkezteko. Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak emango du dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena, gehienez ere, hiruhilabeteko epean eskaria aurkeztu izan den egunetik zenbatuta.

Batzorde ebaluatzailea, Euskara sailaren arduradun politikoa, udal idazkaria eta euskara dinamizatzaileak osatuko dute; azken honek bileren akta osatuko du.

Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeek kasuan, ordainketa bi zatitan egingo da: lehenengo zatia (%70a) eskaerak onartutakoan eta bigarrenkoa (%30a) zuriak egin eta gero.

f.- Justifikazioa.

Dirulaguntzaren justifikazioa egiteko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Egindako jardueraren memorian, diruz lagundutako jarduerak emakumeen eta gizonen egoeran nolako inpaktua izan duen jakiteko, sexuaren arabera banakatuta aurkeztuko dira persona guztiei (jasotzaile edo partehartzaileak, langileak, antolatzaileak eta elkarteak zuzendaritzakideak) buruzko kopuru datuak.
- Diruz lagundutako jardueraren sarrera eta gastuen balantze zehaztua.
- Diruz lagundutako jardueraren gastuak osotara justifikatzen dituzten jatorrizko egiaztagiria eta fakturak. Diruz lagundutako jarduerarekin eta datarekin bat egin beharko dute. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak.

Fakturetan hauxe agertuko da:

- Erakundearen edo/eta elkartearen identifikazioa
- Hornitzailearen identifikazioa
- Fakturaren data
- Kontzeptua
- Dokumentazio grafikoa edota ikus-entzunezkoa, balego.

10. artikulua. Dirulaguntza ematea.

a. Baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak aztertuko dituzte sail ezberdinetako teknikariek eta 10 eguneko epea emango du akatsak dituztenek horiek zuzendu ahal izan ditzaten edo agiriren bat falta dutenek hura ekarri ahal izan dezaten.

b. Dirulaguntza hauen emale diren sailek aurkeztutako txostenak aztertuko dituzte:

1. Aurrekontuan kreditu nahikoa badagoen, aurkeztutako eskabideak eta txostenak baldintzak betetzen dituzten eta guztia aztertutik, organo ahaldunak baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei dirulaguntza emango die. Bestalde, gainerako eskabideak dirulaguntzetatik kanpo utziko dituzte. Dena den, alegazioak egiteko egutegiko hamar eguneko epea emango die.

Erreklamazioei buruzko ebazpena bi hilabeteko epean emango du, agiriak aurkezteko epearen azken egunetik hasita, eta ebazpen hori udaleko iragarkitaulan jarriko da ikusgai.

2. Oinarri hauetako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei aurre egin ahal izateko aurrekontuan kreditu nahikorik ez badago, organo ahaldunak, aurkeztutako eskabideak eta txostenak aztertutik, partidaren diru kopuru osoa onartutako eskarien artean banatuko du. Alegazioak aurkezteko egutegiko hamar eguneko epea emango du.

Erreklamazioei buruzko ebazpena gehienez bi hilabeteko epean emango du, agiriak aurkezteko epearen azken egunetik hasita, eta ebazpen hori udaletxeko iragarkitaulan jarriko da ikusgai.

11. artikulua. Publizitatea

Diruz lagundutako ekintzen publizitate-elementu orotan (kartelak, pankartak, esku-orriak ...) oinarri orokorrean 16. artikuluan jaso bezala, onuradunak azalduko du grafikoki Lezoko Udalaren partaidetza-laguntza eta herriko irudi korporatiboa ageriko da, kirol entitateen kasuan baita MuittuLEZOri dagokiona ere.

AZKEN XEDAPENA

a. Dirulaguntza hauek aurreikusitako daude Lezoko Udalaren 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

b. Deialdi honek esaten ez duenari dagokionez, kontuan hartuko da Lezoko Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak eta haren 887/2006 Errege Dekretua.

I ERANSKINA / ANEXO I

UDALERRIZ GAINDIKO ERAKUNDEEN DIRULAGUNTZAK: PUNTUAZIO SISTEMA SUBVENCIONES PARA ENTIDADES SUPRANACIONALES SISTEMA DE PUNTUACIÓN

a) Egoera soziolinguistikoa / Situación sociolingüística:

Biztanlegoaren artean dauden euskaldunen (Euskaldunak + la euskadunak (%50)) ehunekoa.
Porcentaje de euskaldunes (Euskaldunes+ %50 de Casi euskaldunes) de la totalidad de los habitantes.

% 0-30,9:	100 puntu/puntos
%31-40,9:	50 puntu/puntos
%41-60,9:	20 puntu/puntos
%61-70,9:	10 puntu/puntos
%71-100:	5 puntu/puntos

Eragin eremua Ámbito de actuación	Euskaldun kop. (*) (**) (***) Número de euskaldunes	Puntuak Puntos
EH (EAE+Nafarroa+Iparralde)	%37,3	50 puntu/puntos
EAE (Araba+Bizkaia+Gipuzkoa)	%52,9	20 puntu/puntos
Iparralde (Lapurdii/Behe Nafarroa/Zuberoa)	%25,9	100 puntu/puntos
Nafarroa	%20,7	100 puntu/puntos
Araba	%41,3	20 puntu/puntos
Bizkaia	%47,8	20 puntu/puntos
Gipuzkoa	%66,2	10 puntu/puntos

b) Bere eragin eremuan eragindako biztanle kopurua / Número de habitantes en su ámbito de actuación:

2.500.000 edo gehiago	2.500.000 o más	80 puntu/puntos
1.000.000tik 2.499.999ra bitarte	Entre 1.000.000 y 2.499.999	60 puntu/puntos
500.000-999.999ra bitarte	Entre 500.000 y 999.999	40 puntu/puntos
0-499.999ra bitarte	Entre 0 y 499.999	20 puntu/puntos

Eragin eremua Ámbito de actuación	Biztanleak Habitantes	Puntuak / Puntos
EH (EAE+Nafarroa+Iparralde)	3.193.513 (***)	80 puntu/puntos
EAE (Araba+Bizkaia+Gipuzkoa)	2.186.517 (**)	60 puntu/puntos
Iparralde (Lapurdii/Behe Nafarroa/Zuberoa)	309.673 (***)	20 puntu/puntos
Nafarroa	661.537 (*)	40 puntu/puntos
Araba	330.692 (**)	20 puntu/puntos
Bizkaia	1.139.209 (**)	60 puntu/puntos
Gipuzkoa	716.616 (**)	40 puntu/puntos

c) Dagokion eremu administratiboko hizkuntza legediaren garapena / Desarrollo de legislación lingüística en el ámbito administrativo que corresponde:

Proiektua Proyecto	Puntuak / Puntos
Ez dago legediarik No hay legislación	100
Legedia partziala dago Dispone de legislación parcial	50
Legedia badago Hay legislación	0

d) Proiektuaren memoria aurkeztu izana / Haber presentado la memoria del proyecto:

Proiektua Proyecto	Puntuak / Puntos
Aurkeztu du osatua da Ha presentado proyecto completo	20
Aurkeztu du, baina eskasa da Ha presentado proyecto pero es escaso	10
Ez du proiekturik aurkeztu No ha presentado proyecto	0

(*) Nafarroako Estatistika Erakundea/Instituto de Estadística de Navarra (2021).

(**) EUSTAT (2022)

(***) Gaindegia (2020).